

## **Irizar Taldearen Irizar i8 autokarra eta autobus %100 elektrikoa, Urteko Autokarren saria eta 2016ko Industria Ibilgailu Ekologikoaren saria Espainian**

*Ormaiztegi, 2016ko urtarrilaren 21a*

**2016. urtea beste bi sarirekin hasi du Irizar Taldeak. Aurkeztu berri den Irizar i8 autokarrak eta hiri autobus %100 elektrikoak 2016. Urteko Autokar saria eta Espainiako 2016ko Industria Ibilgailu Ekologikoaren sari sortu berria jaso dituzte.**

Sariak errepidezko garraioaren sektoreko Transporte 3 eta Viajeros aldizkariak sortuak dira, eta autokar eta autobusen modelo berrien bikaintasuna saritzen dute eta estatu mailan Autokar eta autobusen kategorian dauden saririk garrantzitsuentzat jotzen dira.

Epaimahaiko kideak dira bidaiarien garraioaren sektoreko enpresariak, teknikari espezialistak eta automozioaren arloko adituak, eta, hautagaien segurtasuna, fidagarritasuna, ekonomia eta efizientzia zehatz-mehatz aztertu eta gero, erabaki dute Urteko Autokarren saria Irizar i8 modeloari ematea, Urteko Industria Ibilgailu Ekologikoaren saria Irizar i2e modeloari.

Saria pasa den urtarrilaren 20an eman zen, asteazkena, Madrileko Madrid Marriott Auditorium hotelean, sektoreko enpresariak, elkarerik garrantzitsuenetako kideak eta erakundeetako ordezkariak elkartu zituen ekitaldi batean.

*"Errekonozimendu bikoitz hori gure taldearen une indartsu batean iritsi da, eta azken urteetan teknologian eta iraunkortasunean inbertitzeko egiten ari garen ahaleginaren ondorioa", adierazi du Irizar taldeko zuzendari nagusi eta CEO Manuel Orcasitasek.*

Oraingoa lehen aldia da Irizarreko bi ibilgailuk edizio baten beraren barruan saria irabazten dutela, seigarren aldiz jaso dituzte horrelako sariak, eta Irizar i2e Taldearen autobus %100 elektrikoak jasotzen duen bigarren saria da.

Aurkeztu berri den Irizar i8 modeloari emandako Urteko Autokarrik Onenaren sariak Irizar i6 modeloari 2011n emandakoari jarraitzen dio.

### **Irizar i8. Autokar berri bat aro berri baterako.**

Irizar i8-a luxuzko ibilgailua da ibilbide luzeetarako, zerbitzu berezietarako eta beste erabilera berezi batzuetarako, eta merkatuko teknologiarik aurreratuena du. Markaren ikur nagusi gisa



kokatu da, eta kanpoko eta barruko diseinu benetan ikusgarria eta abangoardiako teknologia bateratzen ditu.

Parametro zorrotzenak kontuan harturik sortua, Irizar i8-a ibilgailu sendo, arin, isil eta fidagarria da Neke saiakuntza eta fidagarritasun probarik zorrotzenak egin zaizkio, eta teknologiarik aurreratuenak barneratu ditu diseinu, material, osagai eta produkzio prozesuei dagokienez, kalitate goreneko akabera izateaz gain.

Bere aerodinamikari eta pisuak optimizatzeari esker, autokarrak errentagarritasunik handiena eskaintzen dio operadoreari.

### **Irizar i2e, hiriko autobus % 100 elektrikoa**

Irizar i2e teknologia propioarekin eta bizi zikloaren ikuspegi jakin batekin garatu eta fabrikatu da, eta Irizar Taldeak berrikuntzaren alde egindako apustuaren emaitza da, hiriko mugikortasun iraunkorrari dagokionez erreferente bihurtzeko helburuarekin

Ibilgailu %100 elektrikoa efizientzia energetikorik (kontsumorik txikienarekin) eta autonomiarik handiena lortzeko diseinatuta dago, eta bere bizi zikloaren amaiera ezin hobeto kudeatzeko ere prestatuta dago.

8,45 gr CO2 eq./km.p karbono aztarnarekin (egindako kilometro eta bidaiari bakoitzeko), i2e modelo Irizar taldeko enpresen lan bateratuaren emaitza da: Jema, Datik, Hispacold eta Masats.

Irizar i2e modeloak oso-oso harrera positiboa izan du merkatuan. Donostian eta Bartzelonan zirkulatzen ari diren unitateez gain, Espainian, Londres hirian ere bi dabilta dagoeneko, eta Marseillan beste sei, eta Madril, Paris, Iruñea eta Zaragoza hirietan ere testatu dira.